

Euskal AEko biztanleria landuna %1,6 gutxitu da eta langabezia-tasa %4,6an da 2008ko laugarren hiruhilekoan

Langabezia-tasa hau 27en Europako Batasunekoaren (%7,2) azpitik dago, ehuneko 2,6 puntuz, eta Espainiakoaren aldean (%13,4) ia hiru aldiz txikiagoa da

Euskal AEko lan-merkatuaren 2008ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, okupatuak 955.800 ziren, beraz, hiru hilabete lehenago baino 15.600 gutxiago, %-1,6, Eustaten datuen arabera. Bestalde, langabezia-tasa %4,6ra igo da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,1 puntu gehiago.

Landunen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasa %54,9ra jaitsi da 2008ko laugarren hiruhilekoan.

Generoaren arabera, gizonei eragin die batik bat okupazio-jaisteak, eta okupatuak aurreko hiruhilekoan baino 14.900 gutxiago dira; emakumeen kasuan 800 gutxiago, besterik ez. Jaitsierak hiru herrialdeetan izan dira: Bizkaiak -6.400 enplegu garbi gutxiago ditu, Gipuzkoak -5.500 eta Arabak -3.700.

Enplegu garbien galerarik handienak industrian eta zerbitzuetan dira

Industriak 9.400 enplegu garbi galdu ditu, zerbitzuek 5.900 eta nekazaritzak 300; eraikuntzan ez dago aldaketarik 2008ko laugarren hiruhilekoan.


Landunen tasa, hau da, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren ganean landunek duten ehunekoa, %67an da, hots, hiru hilabete lehenago baino ia ehuneko puntu bat gutxiago. Tasa hori %74,8koa da gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, berriz, %59,1ekoa.

Lurraldeka, okupazio-tasarik altuena Gipuzkoak du, %69,5, aurreko hiruhilekoaren aldean puntu bat gutxiago; ondoren Arabak, %68,3, ehuneko 1,6 puntu gutxiago. Bizkaiak du tasarik txikiena, %65,2, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdia gutxiago.

Kontratu mugagabea duten soldatuen kopurua 17.100etan jaitsi da, 607.700 delarik; aldi baterakoa dutenak (kontraturik ez dutenak barne) 3.400 gutxiago dira, 181.200 guztira.

Euskal AEn zenbatetsitako 829.300 familia-etxeetako herenak ez du pertsona aktiborik. 10etik sei baino gehiagotan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 7.200 familia gutxiago; pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 13.100 dira (guztirakoaren %1,6), aurreko hiruhilekoan baino 3.200 gehiago.

Biztanleria landunaren joera, 1985etik. Euskal AE. (Milakotan)



Iturria: Eustat

Euskal AEn langabezia tasa %3,5etik %4,6ra igo da

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak, urteko laugarren hiruhilekoan 46.400 direla zenbatetsi da, 10.900 gehiago aurreko hiruhilekoan baino. Gizonezko langabeen kolektiboak 23.000 lagun hartzen ditu, 4.100 gehiago. Emakumezkoen artean, 6.700 gehiago daude hirugarren hiruhilekoan, orain guztira 23.300 dira.

2008ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa %4,6an da, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 1,1 puntu gehiago. Gizonen langabeziari dagokionez, %4,1era igo da (ehuneko 0,8 puntu gehiago), eta emakumeena 1,5 puntuz gehitu da, %5,3 delarik. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %11,8, 2,6 puntuz igo delarik; horrenbestez, 16-24 urte bitarteko 6.500 gazte aktibo daude langabezian.

Euskal AEko hiru lurraldeetan igo da langabeen kopurua. Araban, 8.200 langaberekin, kopurua 6.300etan hazi da eta langabezia-tasa %5,4an da. Bizkaian 1.700 langabe gehiago daude, eta tasa %4,9an da. Gipuzkoan %3,9ko tasa dugu; langabe kopuruan 3.000 pertsona gehiago ditugu, 12.800 guztira.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2008ko azaroan, 27-EBko langabezia-tasa %7,2an zen, eta Espainiakoa %13,4an.

Azken urtean 15.000 lagun gehiago ditugu langabezian

Biztanleria landunak behera egin du azken hamabi hilabeteetan. 2008ko laugarren hiruhilekoan, 2007koaren aldean, 18.600 pertsona gutxiago, %-1,9. Jaitsiera horrek gizonei eragin die batik bat, 20.600 enplegu gutxiago; emakumeen artean, berriz 1.900 gehiago.

Langabezia-tasa ehuneko 1,5 puntuz igo da azken urtean (%3,1etik %4,6ra). Beraz, 2008ko hondarrean 15.000 pertsona gehiago langabeak ziren Euskal AEn. Araban ehuneko 3,4 puntuz igo da langabezia-tasa, Bizkaian puntu batean eta Gipuzkoan 1,5 puntuz azken hamabi hiletan.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2008ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	p.p.*	Milakoak	p.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.826,2		-2,0		+0,8	
AKTIBOAK/ IHARDUERA TASA	1002,2	54,9	-4,7	-0,2	-3,6	-0,2
Gizonezkoak	562,1	63,4	-10,6	-1,1	-13,5	-1,5
Emakumezkoak	440,2	46,8	+6,0	+0,6	+10,0	+1,0
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	955,8	67,0	-15,6	-0,9	-18,6	-1,0
Gizonezkoak	539,0	74,8	-14,9	-1,8	-20,6	-2,4
Emakumezkoak	416,8	59,1	-0,8	+0,2	+1,9	+0,5
Araba	143,3	68,3	-3,7	-1,6	-1,7	-1,0
Bizkaia	496,1	65,2	-6,4	-0,5	-9,6	-0,8
Gipuzkoa	316,4	69,5	-5,5	-1,0	-7,3	-1,2
Nekazaritza	11,6		-0,3		-0,5	
Industria	242,2		-9,4		-1,6	
Eraikuntza	77,9		0,0		-7,9	
Zerbitzuak	624,1		-5,9		-8,6	
Soldatakoak	788,9		-20,5		-12,2	
- Kontratu mugagabea dutenak	607,7		-17,1		-8,2	
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	181,2		-3,4		-4,0	
Ez soldatakoak	167,0		+4,9		-6,3	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	46,4	4,6	+10,9	+1,1	+15,0	+1,5
Gizonezkoak	23,0	4,1	+4,1	+0,8	+7,0	+1,3
Emakumezkoak	23,3	5,3	+6,7	+1,5	+7,9	+1,7
16 - 24	6,5	11,8	+0,7	+2,6	+2,2	+4,7
25 - 44	30,2	5,2	+9,6	+1,6	+8,5	+1,5
45 eta gehiago	9,7	2,6	+0,6	+0,1	+4,3	+1,1
Araba	8,2	5,4	+6,3	+4,1	+5,2	+3,4
Bizkaia	25,5	4,9	+1,7	+0,4	+5,2	+1,0
Gipuzkoa	12,8	3,9	+3,0	+0,9	+4,7	+1,5
Lehen enplegu bila	2,2		-1,1		-0,2	
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	824,0	45,1	+2,7	+0,2	+4,4	+0,2
ETXEBIZITZAK	829,3		+0,7		+30,0	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	564,3	68,0	+3,0		+6,9	
- Guztiak okupatuak	521,9	62,9	-7,2		-7,3	
- Guztiak langabeak	13,1	1,6	+3,2		+4,0	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	265,0	32,0	-2,2		+23,1	

*p.p. = Aldea, ehunekotan. **Iturria: EUSTAT**

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^aJosé Santamaría Gallardo

+Tlf:+34-945-01 75 33 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp